

## 2009ko LAN-POLTSAK

Lan-poltsen xedea da aldi baterako kontratuak egitea eta, horien bidez, aldi baterako bete behar diren lanpostuak betetzea behin-behineko edota noizbehinkako beharrei aurre egiteko.

Hori horrela izanik, lan-poltsak ez dira egiturazko lanpostuak betetzeko erabiliko. Horrela, kontratazioen bat egiteko premia gertatzen denean, Ebaluazio Batzordeak erabakiko du lanpostu jakin bat lan-poltsa bidez bete behar den edo, bestela, egiturazko premia izanik langile finkoak betetzekoa den. Horrez gain, bidezkoago eta eraginkorragotzat jotzen dugu lanpostu horiek udal langileekin betetzea, barne promozioaren bidez.

Hasiera batean, honako lan-poltsa hauek osatuko dira:

- Ofiziotako langileak, AP taldea (peoiak)
- Ofiziotako langileak, AP taldea (lur-emalleak)
- Ofiziotako langileak, AP taldea (garbitzaileak)
- Atezainak
- Administrari laguntzaileak
- Administrariak
- Liburutegiko arduradunak
- Musika irakasleak
- Euskaltegiko irakasleak
- Gizarte langileak.

### HAUTAKETA-PROZESUA

- Egin edo egingo diren oposizioetako zerrendak erabiliko dira lan-poltsak osatzeko. Lan-poltsa horiek 4 urterako balioko dute.
- Oposizioerik ez badago, lehiaketa berezien bidez osatuko dira lan-poltsak, gaiari buruzko iragarkiak prentsan argitaratuta. Lan-poltsak 4 urteko balioa izango dute edo, bestela, beste lan-eskaintza publiko bat egin arte edo beste lan-poltsa batzuk osatu arte.

### KONTRATAZIOAK EGITEKO SISTEMA.

- Kontratatu den pertsonari behintzat hamabi hilabeteko lanaldiak egiteko aukera emango zaio, ahal den neurrian, kontratu batekin edo gehiagorekin.
- Kontratuak hamabi hilabete baino gutxiagokoak direnean, lehendik zuen hurrenkera berean jarriko da pertsona hori berriro ere zerrendetan, beti ere arlo arduradunak ez badu arrazoitutako aurkako txostenik egiten. Kasu horretan, langileen ordezkarietara horren berri emango zaie.
- Hamabi hilabeteko kontratua edo kontratu luzeagoa izan duen pertsonak eskubidea dauka kontratua amaitzean zerrendako azken tokira pasatzeko, baldin eta zerrendak oraindik indarrean irauten badu.
- Zerrenda bereko pertsona bat baino gehiago kontratatu behar badira, kontuan hartuko dira kontratuaren iraupena eta zerrendako hurrenkera.
- Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa duten lanpostuak betetzeko, dagokion maila daukan zerrendako lehenengo pertsona kontratatuko da. Hizkuntza eskakizun desberdina duten lanpostu bi bete behar badira (2. eta 3. H.E.), euskara mailarik altuena egiaztatzen duen pertsona bilatuko dugu.

lehenengo eta, gero, zerrendako lehenengotik hasita bilatuko dugu maila baxuagoa egiaztatu duen lehenengo pertsona.

- Lan-poltsaren bidez egiten diren kontratazioetan, 15 laneguneko probaldia izango dute.

### HAUTATUTAKO PERTSONARI JAKINARAZPENA EGITEKO PROZEDURA.

Ezinbestekoa izango da jakinarazpena telefonoz egitea bai hautatutako pertsonari eta baita hurrenkeran hurrengo denari ere. Ez bada lortzen beraiekin telefonoz harremanetan jartzea, Funtzio Publikoa Sailak aginpidea izango du kasuan kasuko egoera ikusita konponbiderik egokiena bilatzeko. 24 orduko epea izango du hautatutako pertsonak erantzuna emateko.

### LAN-POLTSETAKO ZERRENDETATIK BAZTERTZEKO IRIZPIDEAK.

Lan-poltsatik kanpo geratuko dira, BEHIN BETIKO:

- Jasotako lan-eskaintza bat onartzen ez dutenak.
- Epea amaitu aurretik kontratua bertan behera uzten dutenak
- Lokalizatzeke abisuari erantzuten ez diotenak, bi kasu desberdin eta jarraian gertatzen denean.
- Kontratazioak egiteko sistemaren bigarren lerrokadan adierazitako pertsonak.

Lan-poltsatik kanpo geratuko dira ALDI BATERAKO:

- Medikuaren baja dutenak.
- Udal administrazioetako beste lan-poltsa baten bitartez lanean ari direnak.
- Kontratazio organoaren iritzian, ez ohiko egoera berezian daudenak.

### EBALUAZIO BATZORDEA: KONTRATAZIOEN KONTROLA

Honako gai hauek kontrolatuko ditu Batzordeak: behar estrukturala ala aldi baterakoa den kasu bakoitza, zerrenda osatzen duten pertsona guztien berdintasunerako eskubidea bermatzea eta lan-poltsen araudia betetzen dela ziurtatzea.

### ESKAKIZUNAK ETA MEREZIMENDUAK

- 16 urte beteak eta 65 urte bete barik izatea.
- INEM-eko langabetuen zerrendetan izena emanda egotea lanpostua hartzeko orduan.
- Lanpostu jakin bakoitzerako eskatzen direnak. Lanpostu jakin bakoitzerako eskatzen diren tituluak eta derrigorrezko euskara maila.

### MEREZIMENDU OROKORRAK

Eskabide-orriak aurkezten direnean baloratuko dira merezimendu orokorrak nahiz bereziak.

- Erandion erroldatuta egotea, behintzat deialdiaren iragarkia prentsan agertzen den eguna baino urtebete lehenagotik. 2 puntu. Urtebetetik gora erroldatuta egindako urte bakoitzeko 0,10 puntu. Guztira 3 puntu, gehienez ere.
- Langabezian egotea: 0,5 puntu sei hilabete jarraian). Gehienez ere 3 puntu. Eskatzaileak lan-bizitzaren agiri eguneratua aurkeztu behar du, bestela ez baitu punturik izango atal honetan. Lan-poltsari buruzko iragarkia prentsan argitaratu den egunaren aurreko hiru urteak hartuko dira aintzat.

**EUSKARA:**

Hizkuntza eskakizunen egiaztapenari eta tituluen baliokidetzari dagokionez, ondoko Dekretuan ezarritakoa izango da aginduzkoa: apirilaren 6ko 64/2008 Dekretua, 2008ko apirilaren 15ean EHAAn argitaratua (71 zk.)

- 1. hizkuntza-eskakizuna	0,75 puntu
- 2. hizkuntza-eskakizuna	Puntu 1,00.
- 3. hizkuntza-eskakizuna	1,25 puntu

**MEREZIMENDU BEREZIAK.****OFIZIOTAKO LANGILEAK, ATEZAINAK ETA GARBITZAILEAK**

Ez da merezimendu berezirik baloratuko ofiziotako langileen, garbitzaileen eta atezainen kasuan.

**ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK:****Baldintzak:**

eskola graduatua, LH1 edo baliokidea.

**Baremo orokorra:**

- LH1 tituluaren jabe izatea, administrazioko adarra:	1 puntu
- Informatika ikastaroak zentro homologatuetan:	0,25 puntu 40 ordu bakoitzeko: puntu 1 gehienez ere.

**ADMINISTRARIAK****Baldintzak:**

- Goi mailako batxilerra, 2. mailako Lanbide-Hezkuntza edo baliokidea.
- Hirugarren hizkuntza-eskakizuna, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) edo baliokidea.

**Baremo orokorra:**

- LH2 tituluaren jabe izatea, administrazioko adarra:	1 puntu
- Informatika ikastaroak zentro homologatuetan:	0,25 puntu 40 ordu bakoitzeko: puntu 1 gehienez ere.

**LIBURUTEGIKO ARDURADUNAK:****Baldintzak:**

- Goi mailako batxilerra, 2. mailako Lanbide-Hezkuntza edo baliokidea.
- Hirugarren hizkuntza-eskakizuna, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) edo baliokidea.

**Baremo orokorra:**

- Administrazio publikoan egindako zerbitzualdia, baina lanpostuarekin zerikusia duten eginkizunetan; 0,20 puntu hileko eta 10 puntu gehienez ere.
- Lanpostuarekin zerikusia duten eginkizunetan izandako bestelako lan esperientzia. Lan esperientzia egiaztatzeko, pertsona horren zerbitzuak kontratatu dituen enpresaren agiria behar da eta agiri horretan argi eta garbi adierazi beharko da zer-nolako lana egin duen eta zenbat denboraz jardun duen lanean. Lanean egindako hilabete bakoitzeko 0,20 puntu emango dira, eta gehienez ere 3 puntu .
- Prestakuntza ikastaroak, lanpostuaren eginkizunei buruzkoak eta zentro ofizialetan egindakoak, besterik ez. 50 ordu arteko ikastaroak: 0,10 puntu ikastaro bakoitzeko, eta gehienez ere 0,5 puntu.
- Prestakuntza ikastaroak, lanpostuaren eginkizunei buruzkoak eta zentro ofizialetan egindakoak. 50-100 orduko ikastaroak: 0,2 puntu ikastaro bakoitzeko, eta gehienez ere puntu 1.
- Prestakuntza ikastaroak, lanpostuaren eginkizunei buruzkoak eta zentro ofizialetan egindakoak, besterik ez. 100 ordutik gorako ikastaroak: 0,50 puntu ikastaroko, eta gehienez ere 1,5 puntu.

## **MUSIKA IRAKASLEAK**

**Eskainitako lanpostuak:** Musika-hizkuntza, pianoa, akordeoia, gitarra, violoncelloa, biolina, zeharkako flauta, saxofoia, tronpeta, bateria, triki-panderoa.

### **Baldintzak:**

- Erdi mailako irakasle tituluaren jabe izatea: 2618/66 Dekretuan arautuak edo, lehenagokoen kasuan, Dekretuan ezarritakoari homologatuak, edo LOGSE legean araututako goi mailako irakasle tituluaren jabe izatea.
- Hirugarren hizkuntza-eskakizunaren edo horren baliokidearen jabe izatea ondoko espezialitateak emateko: musika-hizkuntza, pianoa, akordeoia, gitarra, zeharkako flauta, tronpeta eta triki-panderoa.
- Hori horrela bada ere, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten pertsonen eskabideak ere onartu egingo dira bigarren zerrenda bat osatzeko. Bigarren zerrenda hori honako kasu hauetan baino ez da erabiliko: espezialitate jakin batean ez denean eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duen irakaslerik aurkitzen.
- Gainerako espezialitateetan euskararen ezagutza ez da derrigorrezkoa izango

### **Akordeoi irakasle plaza betetzeko aparteko baldintza**

Eskatutako tituluez gain, tekladun eta botoidun akordeoia bai eta baxu tradizionala eta kromatikoa menperatzen dituztela erakutsi beharko dute hautagaiek eta horretarako, bidezkotzat jotzen bada, Musika Eskolako irakasleak gainbegiratutako oinarritzko proba bat egin beharko dute.

### **Gitarra irakasle plaza betetzeko aparteko baldintza**

Eskatutako tituluez gain, ezinbestekoa da gitarra eta baxu elektrikoa jotzen jakitea eta, bidezkotzat jotzen bada, Musika eskolako irakasleak gainbegiratutako oinarritzko proba bat egin beharko dute hautagaiek, ezagutza hori erakusteko. Ez dute aparteko proba hau egin beharrik izango Musika Modernoan gaikuntza egiaztatzen duten hautagaiek.

### **Baremo orokorra:**

1.-	Maila goragoko titulua eskatutako espezialitatean .....	2,00 puntu
2.-	Maila goragoko tituluak bestelako musika espezialitateetan	1,00 puntu
3.-	Erdi mailako beste titulu batzuk bestelako musika espezialitateetan: IGZ musika espezialitatean, musikako irakasletza (2 eta 3 baremoak baztertzailak dira)	0,50 puntu
4.-	Irakaskuntza publikoan aritu izana betetzeko den plazaren antzekoan: ikasturte oso bakoitzeko 1,50 puntu ( 6 puntu gehienez ere).	1,50 puntu.
5.-	Ikasturte zati batean espezialitate horretan jardutea: hilabete bakoitzeko 0,125 puntu eta 3 puntu gehienez ere.	0,125 puntu
6.-	Irakaskuntza publikoan aritu izana bestelako espezialitateetan: ikasturte	0,75 puntu

	oso bakoitzeko 0,75 puntu eta 1,5 puntu gehienez ere.	
7.-	Irakaskuntza pribatua aritu izana espezialitate jakin horretako lanpostuan: ikasturte oso bakoitzeko 0,25 puntu eta puntu 1 gehienez ere.	0,25 puntu.
8.-	Ikasketa amaierako saria dagokion espezialitatean .....	1,00 puntu.
9.-	Ikasketa amaierako sariak bestelako espezialitateetan .....	0,50 puntu.
10.-	Hezkuntza administrazioak edo Unibertsitateak deitutako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak, gutxienez 10 ordukoak, espezialitatearekin zerikusia dutenak edo eskolako antolamendua, teknologia berriak hezkuntzan, didaktika, hezkuntzaren psikopedagogia eta soziologia (0,10 puntu aktiboentzat, 0,05 puntu entzuleentzat)	Puntu 1,00.
11.-	Kontzertuak, errezitaldiak, konferentziak, grabazioak, lehiaketak: gehienez 3,00 puntu	0,25 puntu
12.-	Administrazioako 3. hizkuntza-eskakizuna edo Hezkuntzako 2 H.E. edo EGA .....	2,00 puntu
13.-	Administrazioako 2. hizkuntza-eskakizuna edo irakaskuntzako 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea	1,00 puntu.
14.-	Administrazioako 1. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea	0,50 puntu

## **EUSKALTEGIKO IRAKASLEAK**

**Eskainitako lanpostuak:** Udal Euskaltegiko irakasleak

### **Baldintzak:**

- Administrazioako 4. hizkuntza-eskakizunaren jabe izatea. Halere, onartu egingo dira EGA titulua edo baliokidea egiaztatzen dutenen eskabidea, kasu jakin batzuetako premiei erantzuteko, hau da, 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duen hautagaririk ez badago, edo kontratua egiteko orduan horietako inor libre ez badago.
- Unibertsitateko diplomatua edo lizentziatua izatea, edo maisu/maistra tituluaren jabe izatea edo HABEK homologatua izatea.

### **Baremo orokorra:**

- 1.- Euskaltegi publikoko irakasle lanetako jarduna: 100 irakastorduko 0,3 puntu. Gehienez ere 10 puntu.
- 2.- Bestelako euskaltegi homologatu eta libreetan egindako irakasle lana: 100 orduko 0,2 puntu. Gehienez ere 5 puntu.  
Aurkeztutako dokumentazioan ordu kopuru txikiagoa egiaztatzen bada, egindako lana proportzio berean baloratuko da.
- 3.- Glotodidaktika, euskalduntze eta alfabetatze arloetako argitalpenak, gehienez ere 5 puntu, ondorengo sailkapenaren arabera:

Artikuluak, 10 orrialdera artekoak	0,50 puntu
Txostena edo dossiera	1,00 puntu.
Liburu edo aldizkari monografikoa	2,00 puntu
Bestelakoa	0,25 puntu

- 4.- Euskaltegietan ardura postuetan izandako eskarmentua, ondoren zehaztutakoaren arabera:

Zuzendari kargua, ikasturte edo urte bakoitzeko (gehienez 10 puntu)	2,00 puntu
Idazkari kargua, ikasturte edo urte bakoitzeko (gehienez 10 puntu)	1,00 puntu
Materiala editatzea edo programazioa egitea (gehienez 10 puntu)	0,20 puntu (hilabeteko)

Aurkeztutako dokumentazioan ordu kopuru txikiagoa egiaztatzen bada, egindako lana proportzio berean baloratuko da.

Euskaltegi homologatuen kasuetan honako baremoa aplikatuko da:

Zuzendari kargua, ikasturte edo urte bakoitzeko (gehienez 10 puntu)	1,00 puntu
Idazkari kargua, ikasturte edo urte bakoitzeko (gehienez 10 puntu)	0,50 puntu
Materiala editatzea edo programazioa egitea (gehienez 10 puntu)	0,10 puntu (hilabeteko)

5.- Pedagogia, Euskal Filologia edo Psikopedagogiako doktoregoa: 4 puntu

6.- Euskal Filologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura: 3 puntu.

7.- Maisu/maistra ikasketen diplomatura, Euskal Filologiako adarrean: 2 puntu.

8.- Euskal Filologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura: 1 puntu.

9.- Beste lizentziatura edo goi-mailako titulazio batzuk: puntu 1.

10.- Euskaltzaindiaren B titulua: puntu 1

11.- Aurreko ataletan zehaztu gabeko bestelako merezimenduak, helduei zuzendutako euskararen irakaskuntzarekin zerikusia dutenak, ondoren adieraziko den sailkapenaren arabera, 3 puntu gehienez ere:

a) Erakunde edo unibertsitate publikoetan egindako ikastaroak (HABE, EHU, UNED, UEU, HAEE, eta abar)

11 eta 50 ordu bitartekoak	0,30 puntu
50 ordu baino gehiagoko ikastaroak:	0,50 puntu
Iraupena zehaztu gabeko ikastaroak	0,10 puntu

b) Erakunde edo unibertsitate publikoetan emandako ikastaroak (HABE, EHU, UNED, UEU, HAEE, eta abar)

10 orduetik beherako ikastaroak	0,40 puntu
11 eta 50 ordu bitartekoak	0,60 puntu
50 ordu baino gehiagoko ikastaroak:	1,00 puntu
Iraupena zehaztu gabeko ikastaroak	0,20 puntu

c) Erakunde pribatuetan egindako ikastaroak

11 eta 50 ordu bitartekoak	0,20 puntu
50 ordu baino gehiagoko ikastaroak:	0,30 puntu
Iraupena zehaztu gabeko ikastaroak	0,05 puntu

d) Bestelako erakunde pribatuetan egindako ikastaroak

10 orduetik beherako ikastaroak	0,20 puntu
11 eta 50 ordu bitartekoak	0,30 puntu
50 ordu baino gehiagoko ikastaroak:	0,50 puntu
Iraupena zehaztu gabeko ikastaroak	0,10 puntu

e) Erakunde eta unibertsitate publiko zein pribatuek emandako agiriak

EHUren bizkaierazko ziurtagiria	1,00 puntu
Itzulpengintza edo linguistikako masterra EHUen edo beste unibertsitate batean	2,00 puntu
Euskal kultura edo literaturako masterra, EHUen edo beste unibertsitate batean	0,10 puntu
Euskararen sakontze agiria (UNED)	0,50 puntu

f) Beste erakunde pribatu batzuek emandako ziurtagiriak:

Bizkaieraren ziurtagiria	0,50 puntu
--------------------------	------------

## **GIZARTE LANGILEAK:**

**Baldintzak:** Gizarte-langile titulua edo baliokidea.

**Baremo orokorra:**

- Administrazio publikoan egindako zerbitzualdia, baina lanpostuarekin zerikusia duten eginkizunetan; 0,20 puntu hileko eta 10 puntu gehienez ere.
- Lanpostuarekin zerikusia duten eginkizunetan izandako bestelako lan esperientzia. Lan esperientzia egiaztatzeko, pertsona horren zerbitzuak kontratatu dituen enpresaren agiria behar da eta agiri horretan argi eta garbi adierazi beharko da zer-nolako lana egin duen eta zenbat denboraz jardun duen lanean. Lanean egindako hilabete bakoitzeko 0,20 puntu emango dira, eta gehienez ere 3 puntu .
- Prestakuntza ikastaroak, lanpostuaren eginkizunei buruzkoak eta zentro ofizialetan egindakoak, besterik ez. 50 ordura arteko ikastaroak: 0,10 puntu ikastaro bakoitzeko, eta gehienez ere 0,5 puntu.
- Prestakuntza ikastaroak, lanpostuaren eginkizunei buruzkoak eta zentro ofizialetan egindakoak. 50-100 orduko ikastaroak: 0,2 puntu ikastaro bakoitzeko, eta gehienez ere puntu 1.
- Prestakuntza ikastaroak, lanpostuaren eginkizunei buruzkoak eta zentro ofizialetan egindakoak, besterik ez. 100 ordutik gorako ikastaroak: 0,50 puntu ikastaroko, eta gehienez ere 1,5 puntu.

**PROBA PRAKTIKOAK: ADMINISTRARIAK, ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK eta LUR-EMAILEAK**

- Administrari eta administrari laguntzaileen lan-poltsak osatzeko deialdiak egiten direnean, lehendabizi zerrenda bakoitzaren baremazioa egingo da eta, ondoren, Ebaluazio Batzordeak deia egingo die zerrenda bakoitzetik punturik gehien lortu duten lehendabiziko hogeitun (20) pertsonei, lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen proba praktikoa egiteko; kasu honetan zenbait ariketa egin beharko dute ekipo informatikoak erabilita.
- Merezimendu orokorretan lor daitekeen gehienezko puntuen %100eko balioa izango da proba honetan lor daitekeen gehienezko puntuen zenbatekoa (7,25). Bestalde, probak izango duen iraupena eta edukia Ebaluazio Batzordeak erabakiko ditu, proba egin aurretik egingo duen bileran.
- Era berean, lur-emaileen lan-poltsa osatzeko, punturik gehien lortu duten lehenengo 10 pertsonei deituko die Balorazio Batzordeak eta horretarako erabakitzen duten proba praktikoa egingo dute. Lehiaketa faserako ezarritako gehienezko puntuazioaren %100eko balioa izango du proba praktikoa (7,25 puntu).

**HAUTAGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA.**

Hautagaien behin betiko zerrenda honela osatuko da: merezimendu orokorretan eta berezietan lortutako puntuei proba praktikoan lortutako puntuak gehituko zaizkie lehenengo hogeitun (20) edo hamar (10) postuetan, kasuan kasukoa. Gainontzeko hautagaiak hogeita bat (21) edo hamaikagarren (11) postuan hasita agertuko dira, merezimendu orokorretan eta berezietan lortutako puntuak batuta dagokien hurrenkeran.

**BERDINKETAK.**

Merezimendu orokorrak eta bereziak batuta lortzen den guztizko emaitzan berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango du langabezian antzinasun handiena duen pertsonak; berdinketak bere horretan jarraitzen badu, adinez nagusia denak izango du lehentasuna.

**EBALUAZIO BATZORDEAREN OSAKETA**

- Funtzio Publikoa eta Pertsonal Arloko funtzionario burua.
- Beteko diren lanpostuen Saileko edo Arloko teknikaria.
- Alkatetzak izendatutako ordezkari bat
- Idazkaria, Funtzio Publikoa eta Pertsonal Saileko funtzionarioa, hizpidea bai baina botorik izango ez duena.

FUNTZIO PUBLIKOA ETA GIZABALIABIDEEN KUDEAKETA



FUNCIÓN PÚBLICA Y GESTIÓN DE RECURSOS HUMANOS

Erandioko Elizatean, 2009ko otsailaren 25ean.